

## Huheziko bi ikaslek irabazi dute MUren VII. Argazki lehiaketa

2009/05/24

**Julen Elorza** mondragoetarrak eta **Jokin Leniz** lekeitiarrak, biak Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten 4. mailan, irabazi dute **VII. Argazki lehiaketa**, Mondragon Unibertsitatearen Kirol Zerbitzuak antolatua. Lehenak irabazi du bilduma onenaren saria "Match point" bildumarekin (200€), eta bigarrenak, berriz, argazki onenari emandakoa, "Nekea eta poza" argazkiarekin (100€).

Bederatzi kide aurkeztu dira lehiaketara aurten, "Kirola eta emozioak" gai nagusia zuela. Lanak baloratzeko orduan, kontuan hartu dira kalitate teknikoa eta artistikoa ez ezik, baita gaia islatzeko originaltasuna ere. Aurten, gainera, MUren Kirol Zerbitzuak blog bat erabili du jendeak bertan eman zezan botoa.

### Argazkirik onena

Azkenean, hiru argazki iritsi ziren finalera. Irabazlea, berriz, "**Nekea eta poza**" izenekoa izan da, Jokin Leniz ikaslearena. Argazkiak ezin hobeto islatzen du triatloiko lasterketa bat amaitzeak zelako neke eta poz dakartzan.

### Bildumarik onena

Zalantzak handiak izan diren arren, azkenean Julen Elorzak aurkeztu duen "**Match point**" bildumak jaso du saria. Bilduma horrek garbi islatzen du errugbi partida batean aurkariek zelako emozio aldaketak izan ditzaketen eta jokalariek zelako emozioak sorrarazten dizkieten ikusleei.

